



# Prebentzinoaren ganeko osasun jardunaldiak antolatu dabez

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) jardunaldiak antolatu dauz, datorren maiatzaren 4 eta 5erako. Prebentzinoaren gaia jorratuko dabe Igeretxe hotelean egingo diran jardunaldietan. Antolatzaileek azaldu dabe-nez, 200 mediku eta aditu inguru batzeko asmoa daukie.

Datorren maiatzaren 4ean, barikuan, hasiko dira jardunaldiak. *Lan gaixotasunak eta arriskuak osasungintzan. Nola ekidin?* gaia izango dauen mahai inguruagaz hasiko dira. Horren ostean, prebentzinoaren ganean hausnarketa egiteko aukera izango dabe bertara doazan guztiek. Ganera, eta jardunaldiak aprobetxauta, OEEK urteroko batzarra egingo dau. Osasungintzan euskera sustatzeko alkartea da OEE.

**ABADIÑO**

## Alga enpresak ingurua kutsatzen dauela salatu dabe Lebario auzokoek

Industrias Alga S.A. enpresak ingurumenarendako kaltegarriak diran jarduerak egiten dauzala salatu dabe Abadiñoko Lebario auzoko ek. Salaketa ipini dabe Udalean, eta EAEko Ingurumena Babesteko Legea beteteko exijidu. Udalak neurriak hartu daizala eskatzeaz ganera, egiten dan ekintza bakotxaren ganeko informazinoa izatea be gura dabe. Dinoenez, Lebarioko burdinola zaharreko ubidera isurketak egiten dauz Algak, eta hainbat produktu kimiko uragaz nahasten dira. Ur horregaz ortuak ureztatzen dabez, eta zikinkeria dagoanean, ezin izaten dabe ezer egin. Jabier Uriarte Abadiñoko alkateak, bere aldetik, esan dau Zaldibar-Durango hodi biltzailera lotzeko behar diran neurriak eskatu deutozala Ur Partzuergoak Alga enpresari.

**BILBO.** Urazurrutiako kaia

# Kaia konpontzeko eskatu deutso Azkunak Ingurumen Ministerioari

Joan zan astelehenean jausi zan Urazurrutia-ko kaia, eta harrezkero bertako bizilagunak alde batetik bestera dabilz konponbideak eta ardurak eskatzen. Ur Partzuergoa, Portuko Agintaritza eta Udalaren Obrak eta Zerbitzuak Saileko arduradunakaz batu zan Iñaki Atea. Bileraren ostean zera esan eban alkateak arazo danak, eta ministroa enterau be ez da e-

# Gutuna bialdu deutso Matasi obrak egiteko eskatzen

tzuak Saileko arduradunakaz batu zan Iñaki Azkuna Billboko alkatea. Bileraren ostean zera esan eban alkateak: «Udalarentzat dira arazo danak, eta ministroa enterau be ez da egin». Bide batez, Jau-

me Matas Espainiako Ingurumen ministroari gutuna bidali deusala azaldu eban. Urazurrutiako kaia ze egoeratan dagoan eta arazorik balego konpontzeko eskatzen deuslo Matasi.

Kaiaren egoeragaitik arduratuta agertu zan alkatea. «Arduratuta nago San Anton zubitik errekan gorako tartean beheganea arriskuan egon leitekkelako». Goizean, udaletxearen aurrean kontzentrau ziran Urazurrutiako auzotarrak.

## BILBO. Udala



# Batzar aretoa ia hutsik geratu zan

Azkenean ez zan egin Bilboko Udaleko hileroko udal batzarra. PP eta PSE-EEko zinegotziek ez zirala joango agertu eben, Izan be, joan dan martian adierazo ebenez, ez dabe EHk aurkeztutako moziorik eztabaidatzeko asmorik. EAJ-EA, ICV, IU-EB eta EHko zinegotziak agertu ziran bakarrik udal batzarrera. Egoera

hori ikusita, eta quorum-ik ez egoala ikusita, bertan behera laga eban udal batzarra Iñaki Azkuna alkateak. EAJk izandako jarre-ra salatu eban Euskal Herritarrok alderdiak. *PNV, non zaude? PP-PSOEren morroi* ipinten eban pankarta atera eben EHko zine-gotziek, eta «eztabaida politikoa galazo» dala nabarmendu.